

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
1 positibo berri	278 hildako	151 positibo berri	493 hildako
3.011 positibo guztira*	74 ospitalizatuta	7.637 positibo guztira	151 ospitalizatuta
*Hernanin 55, Astigarragan 20		Sendatuak: EAE 14.913, Nafar. 3.155	

Zaintza lanek emakumeen euskal literaturan izan duten isladari buruz, gaurko solasaldian

'Zaintzaren auzia, euskal emakume idazleen ahotsetan' saioa gidatuko du Kattalin Miner kazetari eta idazleak, 18:00etan hasita, Hernaniko Udalaren Youtubeko kanalean. Ostiralean, Miren Gojenolarekin antzerkia.

HERNANI-ASTIGARRAGA KULTURA

Gaur emango diote segida, Hernaniko Udalak antolatutako online programazioari. Internet bidezko kultur ekitalditan hirugarrena izango da, eta literatur solasaldia egingo dute oraingoan, Kattalin Miner kazetari eta idazleak gidatuta: *Zaintzaren auzia, euskal emakume idazleen ahotsetan*. Arratsaldeko 18:00etan hasita, Hernaniko Udalaren Youtubeko kanalean egongo da ikusgai. hernani.eus eta kronika.eus web orrietan

dago lotura zuzena.

Zaintza lanek euskal literaturan duten isladari buruz ariko dira, solasaldian: «azken urteetako euskerazko literaturan, presentzia haundia hartu du zaintzaren auziak», azaldu dute. Baina idazle guztiek, ez diote «era berean eutsi» gaiari, «ertz askoko kontua baita». Edonola ere, euskal emakumeen ikuspuntutik jorratuko dute gaia gaurkoan: «argi dagoena da, azken urteetan euskal emakume idazleei buruko min bat edo beste eragin diela kontuak.

Eta saio honetan, autore desberdinen lanei begira jarrita, zaintza eta zaintza lanen irakurketa desberdinak ikusi eta ikertuko ditugu», aurreratu dute.

'Hitzen distira' antzetzeko du Miren Gojenolak, etzi

Beste kultur ekitaldirik izango da aste honetan bertan, Hernaniko Udalaren Youtubeko kanalean: antzezlan eskainiko du Miren Gojenola aktoreak, etzi. Arratsaldeko 19:30etan hasita, Karmele Jaio idazlearen *Hitzen distira* testuko pasarte bat interpretatuko du Gojenolak, ikusleentzat.

Astigarragako Udalak, zenbait emanaldi eskura

Eskaini du kultur emanaldirik, Astigarragako Udalak ere, bere web orrian (astigarraga.eus).



Kattalin Miner idazleak gidatuko du gaurko solasaldia.

Haur eta familientzako aisialdia etxean atalean sartuta, ikusgai daude bertan, makina bat saio: Ituiño magoaren emanaldia; Oliver magoa, Eva eta Liubarena; Lur Kortaren bi ipuin kontaketa;

Roberto hartza eta Fox azeria txo-txongiloak; zirku tailerra; Didau antzerki taldearen *Beldartxo jautuna etxean* emanaldia; Bihotzak disko festa; esperimendu tailerra... **K**

Errenta aitortpena presentzialki egin daiteke gaurtik Gipuzkoan, eta zabalik egongo da Hernaniko bulegoa

Dagoeneko eskatu daiteke hitzordua, aitortpen mekanizatua egiteko: 943 11 30 00 telefonora deituta, edo 'www.gipuzkoa.eus' webguneko Ogasuna atalaren bitartez. Nafarroan, aitortpen gidatua egin daiteke, bulegoaren antzekoa.

URUMEA ERRENTA AITORTPEN

Martxan da gaurtik, Gipuzkoan, errenta aitortpena aurrez aurre egiteko modalitatea, mekanizatua. Eta zabalik egongo da, horretarako, Hernaniko bulegoa ere, Latsunbeberriko 8 eta 9 zenbakietan dagoena.

Horrez gain, beste 10 bulego ere egongo dira zabalik; Urumea bailaratik gertukoena, Donostiako hirua; bulego nagusia, Errotaburu pasealekuko 2garren

zenbakian; beste bulego bat, Secundino Esnaola kaleko 10 eta 12 zenbakietan; eta hirugarrena, Sancho El Sabio kaleko 9an.

Gainerako bulegoak, egongo dira Azpeitian, Beasainen, Bergaran, Eibarren, Irunen, Errenterian eta Tolosan.

Bulegoak goizez egongo dira zabalik, 08:00etatik 14:00etara, astelehenetik larunbatera. Eta aitortpena aurrez aurre egiteko, hitzordua eskatu beharko da aldeztu aurretik. Bi modu daude

aukeran, horretarako: telefonoz deituta 943 11 30 00 zenbakira; eta www.gipuzkoa.eus webgunean, Ogasuneko sailean, *Errenta mekanizatuaren hitzordua* atalean: www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/errenta/hitzordua.

Beste modalitateetan bezala, uztailaren 29ra arte izango da epea, aurrez aurreko aitortpena egiteko ere. Hitzordua, uztailaren 7ra arte eskatu daiteke.

Gomendioak, bulegoetara joan aurretik

Errenta aitortpena era mekanizatua egin nahi dutenei, eta zita hartu ondoren, zenbait gomendio kontutan hartzeko eskatu diete. Batetik, garrantzitsua da dokumentazio egokia aurkeztea; eta horretarako, web

orrian zein telefonoz kontsultatu daiteke, zein den aurkeztu beharrekoa. Bestetik, NAN originala eraman behar da. Eta hirugarrenik, idatziren bat aurkeztu behar izanez gero, duplikatuta eraman behar da.

Bestalde, gaurtik aurrera bulegoan egin daitekeen arren, aitortpena online egiteko gonbitea luzatu dute berriro, osasun alarma egoera dela eta. Hori, Zergabidea programaren bitartez egin behar da, ondorengo webgunean: zergabidea.gipuzkoa.eus.

Kronika.eus web orrian bertan, albiste honekin batera, daude jarraibideak online egiteko.

Nafarroan aitortpen gidatua, bulegoaren antzeko

Martxan da errenta aitortpena-

ren kanpaina, Nafarroan ere; baina aurten, ez da aurrez aurre egiteko aukerarik izango, osasun alarma egoeratik. Aukeraren dagoena, internet bidezkoarekin batera (*renta.navarra.es*), aitortpen gidatua da. Alegia, Ogasunak egingo du zure aitortpena, zuk emandako datuekin.

Horretarako, hitzordua eskatu behar da aurrena, telefonoz: 948 50 55 05 edo 948 50 55 06, astelehenetik ostegunera 08:30-17:00 ordutegian, eta ostiraletan 08:30-15:00 ordutegian. NAN eta izen-abizenak eskatuko dizkigute, eta telefono zenbaki bat. Orduan, esango digute posible ote dugun aitortpen gidatua egitea, ez baita posible denentzat. Eta horrela bada, SMS bat bidaliko digute, jarraibideekin. **K**

Hernaniko haurreskola
Covid-19k eragindako egoera dela eta, matrikulazio epea atzeratu egin da.
Noiz zabalduko den jakin bezain laster, aditzera emango dugu.
Edozein zalantza argitzeko: hernani.hernani@haurreskolak.eus
Sagastialdeberri 2
943 55 29 91

ESPECIALISTAS EN MARISCOS
MARISCOS HERNANI
Javier Justiz
609 674 344
Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos.hernani

Allianz
ASEGURUAK
bizitza -
latripsak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

ZORIONAK ARAN!!!

Zorionak Maddi! 11 urte

Famili guztiaren partez Muxu haundi bat

GAUR Giro tristea eta euritsua izango dugu goizean. Arratsaldetik aurrera, atertzera egingo du, bereziki kostaldean. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta indartu egingo da eguerdian, kostaldean bereziki.
Min.11° / Max.16°

BIHAR Zerua estalita egongo da bihar, eta giro frexkoa izango dugu. Euri bikia egingo du egunaren hasieran, eta zaparradak bota ditzake iluntzean, barnealdean bereziki. Iparraldeko haizea ibiliko da, ahal goizean eta indartsuago arratsaldean.
Min.11° / Max.16°

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ANBULATORIOA: 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Haurren sexualitateari buruz aritzeko, Tratu Onen Foroa bihar

Nerea Sanchok gidatuko du, 18:00etan hasita online, eta izena eman behar da aurretik.

HERNANI ARREMANITZ

Tratu Onen Foroa antolatuko du biharko, Arremanitz kooperatibak. Zoom aplikazioaren bitartez egingo dute, online, eta Nerea Sancho Esnaola psikologo eta sexologoak gidatuko du. Haurren sexualitateari buruz ariko dira bertan, 18:00etatik 19:00etara. Aurreneko ordu erdian, hi-

tzaldia eskainiko du Sanchok; eta bigarrenaren, bertaratuei egindako galderei erantzungo die berak. Galderak, modu anonimoan egiteko aukera ere izango da, aurreratu dutenez.

Parte hartzeko, izenematea Saioan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da alde aurretik izena ematea. Horre-

tarako, arremanitz.eus/kontaktua atalean sartu behar da, eta iruzkinean idatzi *Hernani haurren sexualitateak*. Bertan bota daitezke galdera anonimoak ere, eta behin bidalita, Zoom plataforman sartzeko esteka bidaliko diete bueltan. Hitzaldia hasi baino 10 minutu lehenago sartzeko eskatu dute.

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 3garren mailara bitarteko haurren gurasoei dago zuzenduta, bereziki. **K**



Ez dira ohiko San Joan jaiak izango, aurtengoak.

San Joanei buruzko bilera gaur, eragileekin

Jitsi Meet aplikazioa erabiliz egingo dute, 19:00etan. Landuko dute, programazio alternatibo bat osatzeko aukera.

HERNANI SAN JOAN JAIAK

San Joan jaiak ohiko moduan egiterik posible izango ez denez, egitarau alternatibo bat osatzeko lanari ekin diote Hernaniko Udalak eta Jai Batzordeak; eta

horretarako, herriko eragileengana jo dute, proposamen ezberdinak biltzeko asmoz.

Eta gaurkoan, bideo bidezko bilera bat deitu dute, eragile horiekin, aurrez aurreko bilerarik egitea posible ez dela eta. Arratsaldeko 19:00etan egingo dute, Jitsi Meet aplikazioaren bitartez: meet.jit.si/sanjoanak helbidean aurkituko dute sarbidea.

San Joanen inguruko proposamenak helarazi dituztenei, dagoeneko bidali diete gonbitea, bileran parte hartzeko. **K**

Feria bihar, segurtasun neurri berriekin

HERNANI UDALTAINGOA

Neurri berriak izango ditu bihartik, Hernaniko ostegunetako ferriak, Udaltzaingoak jakinarazi duenez. Horrela, postuen artean sei metroko tartea utzi beharko da, eta Urbieta kalean, elikagaien 10 posturentzat izango da tokia. Landare saltzaileak, Latsunbeberriko kirol pistan jarriko dituzte. 08:00etatik 15:00etara egongo da feria zabalik, eta bitarte horretan, trafikoa erabat moztuta egongo da.

Mendi-loteak eskuratzeko, astebete

GOIZUETA UDALA

Bi mendi-lote enkantean jarri ditu Goizuetako Udalak: bata, Etxola-Galtzaburu, Zimizketa eta Errekalko parajeei dagokiena, 1.512,90m³-koa, aleztzea eta pinu larizoa dituena, 21.281,12 euroko hasierako prezioarekin; eta bestea, Etxolla azpia eremuari dagokiena, 1.939,10m³-koa, haritz amerikarra daukana, eta 45.911,52 euroko hasierako prezioan. Maiatzaren 19ra arte aurkeztu daitezke eskaintzak, udaletxeko idazkaritzan (09:30-11:00); baina aurrez hitzordua eskatuta, telefonoz: 948 51 40 06.

'Gure artean ibiliak', azkena igandean

HERNANI FUTBOLA

Asteazkenarekin ez, igandearrekin izango du azkeneko saioa, maiatzaren 17ko honetan, CD Hernaniren *Gure artean ibiliak* programak. Oraingoan ez da gonbidatu berezirik egongo, eta aurkeztu ariko dira, «orain arte egindako saio guztien momenturik onenak gogora ekartzen eta ondo pasatzen». Ez dute baztertu, gainera, aurrerago bueltatzea, beste elkarriketa sorta batekin.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Doberaren zuzendaritza talderako hautagaitza aurkezteko, epea zabalik

Telematikoki egingo du urteko batzarra aurten, ekainaren 17an; eta zuzendaritza aldatu behar dela eta, hilaren 12ra arte aurkeztu daiteke.

HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Osasun alarma egoera tarteko, atzeratu egin du aurtengo urteko batzarra, Dobera Euskara Elkarteak; baina egoera ikusita, batzarra telematikoki egingo da erabaki du. Ekainaren 17an izango da batzarra, arratsaldeko 18:30etan hasita; eta bideo-deiatarako aplikazio baten bitartez

egingo da; aurrerago jakinaraziko dute, zein izango den.

Bertan landuko dituzte, batetik, 2019 urteko balantzea, 2020 urterako aurreikusita zeuden egitasmoak zein ziren, eta orain arteko egoera zein den.

Eta horiekin batera, zuzendaritza talde berriaren aukeraketa ere egingo dute. Izan ere, zuzendaritza taldea aldatzeko

urtea da aurtengo. Eta horretarako, dagoeneko aurkeztu daitezke hautagaitzak. Ekainaren 12ra arte egongo da epea zabalik, Doberarekin harremanetan jarrita: dobera@dobera.eus helbide elektronikora idatzita, edota 662 906 692 telefonora deituta.

Bi urtetik behin berritzen da zuzendaritza taldea, eta beraz, orain osatzen den taldea, 2022ra arte egongo da zuzendaritzan, hasiera batean. Argibide gehiago eskatzeko ere, emaila eta telefonoa erabili ditzakete, interesa duten bazkideek. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Zergatik ez da tratatzen krisi klimatikoa, koronabirusa bezalako larritasunez?

Duela hilabete, oharkabean, pandemia larri batek gizarteak geldiaraziko zuelako berria iritsi zitzaigun. Gobernuek beste aukerarik ez zutelarik, neurriak hartu zituzten pandemia honekin buka dezagun. Hori dela eta, gure etxeetan geratu behar izan dugu, ilunbarrero gure leihoetara ateratzen, osasun-langileek egiten duten lana eskertzeko. Pandemia larri honek hausnarketarako tarte asko eskaini dizkigu; eta atzo, honen inguruan egon nintzen nire buruarekin eztabaidan: zergatik ez da krisi klimatikoa koronabirusa bezalako larritasunez tratatzen?

Alde batetik, aldaketa klimatikoaren ondorioen kalteak emeki-emeki ikusten ditugu koronabirusarenak ez bezala. Dakusagunez, herrialde kalte-

tuenak garatzeko bidean daudenak dira, eta begiak ondo ireki behar ditugu, aldaketa klimatikoa marketinaren gako bihurtu baita azkeneko urteetan. Ondorioz, enpresa askok nahiago dute arazoarekin duten inplikazioa aizuna adierazi, aldaketa klimatikoarekin bukatu beharrean, azken finean, irabaziak ez ezik gizartearen onarpena ere lortzen baitute.

Bestetik, aldaketa klimatikoak sorrarazten dituen ondorioak (itsas mailaren igoera, poloen desizoztea...) gure gizartearen barneratu ditugu, eta ez gara ohartu koronabirusa aldaketa klimatikoaren ondorioetako bat dela. Horregatik, gerorako utzi dugun arazoa izan da. Era berean, ekosistemak etengabe suntsitzen ditugu, eta

azken hauek funtzio eustailea dute, besteak beste, oihaneko animalien artean ohikoak diren gaitzak isolatzen dituztelako. Beraz, koronabirusa bezalako gaixotasunak gizakiok geureganatuko ditugu.

Laburbilduz, koronabirusak ondorio latzak utzi dizkigu tarte laburrean. Ondorioz, herrialdeek haren aurkako estrategiak garatu behar izan dituzte ahalik eta azkarren munstro honekin buka dezagun. Hala ere, ezin dugu aldaketa klimatikoa alde batera utzi, koronabirusa haren ondorioetako bat baita. Hortaz, jakinarazi behar diegu gobernuei aldaketa klimatikoarekin bukatu nahi dugula, beranduegi izan baino lehen.

Iker Arratibel Zotes